

aitzari

LAUKIZ eta MARURI-JATABEKO EUSKARA ZERBITZUA

2012ko urtarrila • 34 zenbakia



**Urtarril hotza,
neguaren bihotza**

San Martin eta Lore jokoak




Duda barik, azaroaren 11 egun berezia da laukiztarrantzat, Martin Deunaren eguna da eta. Aurten ere, herriko jende piloa batu zen egun honetan mezatara joateko eta ondoren eskeintzen den bertoko produktuen dastaketaz gozatzeko: txorizoa, buskentza, gazta, txakolina...ezin falta egun honetan!.

Eta data hauetan ere, laukiztarrok "Lore jokoak" ospatzen ditugu Aiko kultur Taldearen eskutik. Lauaxetaren jaiotzaren mendeurrenean berreskuratutako jai honek, zazpigarren edizioa bete du aurten. Gauzak horrela, domekan, azaroaren 13an, alegia, jai eguna hasi zen meza ostean, adarraren deiarekin.

Laukiztarrak eta lagun asko batu ginen frontoian herriko neska-mutilek prestatutako dantzak ikusteko. Ondoren, Gaztedi Sokatira Taldea lehiari aritu zen herri kiroletan. Beti bezala, beraien indarra, ahalegina eta gogoia erakutsi zizkiguten.

Ekintza hauekin batera olerki lehiaketaren sariak banatu ziren eta bai ganadu bai antzinako tresnen erakusketa ikusteko aukera ere izan genuen. Hain goiz animatua bukatzeko, bertoko produktuen dastaketa egon zen.



Dantza modernoa

Gure herrietako txikiek badute aurten asko gustatzen zaien ekintza bat: Dantza modernoa alegia. Jataben, talde bat sortu zen urrian eta asteen behin (barikuetan) Kultur Etxean egoten dira saltoka eta dantzan. Laukizen berriz, bi talde sortu ziren asteen bitan joaten direnak entsaiatzera. Eta gurasoei eskola hauetan zer ikasten duten erakusteko "agerketa" txiki bat egin zuten Gatikako taldeekin batera pasa den abenduaren 17an. Entsaioak egiteko denbora gutxi izan arren, primeran egin zuten. Seguru gaude ekainean ikuskizun izugarria izango dela! Segi horrela!



Zemendiko bertsoak

Azken urteotan ohikoa danez, zemendia bertso-tan pasatu dogu. Izan be, Laukizen, 11n eta Maruri-Jataben 26an bertsoak entzuteko eta afaria eta konpainia ederraz gozateko aukera paregabea izan genduan.

Laukizen Urrutia jatetxean batu ziran 40 lagun inguru Oihana Bartra eta Arkaitz Estiballes-en bertsoak adi-tuteko.



Aste pare bat beranduago, hitzordua Maruri-Jatabeko Jatetzi Txokoan izan zan. Punta-puntako bertsolariak bertan: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso. Jendeak be ez eban hutsik egin eta 60 lagun inguru batu ziran, inoiz baino gehiago alegia.


Laukizen zein Jataben primeran pasa genduan bertaratuak zirikatuten aritu baitziran bertsolariak.

Itxaroten dogu datorren urtean be, aurten beste jende edo gehiago etortea.



Jon Arretxeren ikus-entzunezkoa

Pasa den zehendiaren 23an, Jon Arretxe Euskal idazle eta bidaiaria Maruri-Jataben izan genduan berak egindako bidaien barri emoteko. "Hamaika bidaia, hamaika liburu" izenburupean, apurka-apurka bertaratutakoei azaldu euskun zelan hasi zan bidaia egiten eta zelan sortu zan ikusitakoa eta bizitakoa kontatuteko grina. Bidaia desbardinak, luzeak, bizikletaz egindakoak... baina guztietan bertoko jendea eta herrialde horreek hobeto ezagututeko nahia azaltzen zan. Ordu eta erdiko solasaldi ederra, lasaia eta interesgarria benetan!



GABONETAN ZINEA EUSKARAZ

Aurten be, urtea ondo amaituteko, euskerazko zine emonaldiak izan doguz bai Laukizen bai Maruri-Jataben. Umeei gabonetan herrian ondo pasatuteko aukerea emotea izan da honen helburua.

Laukizen, Atxispes izeneko lokalean, abenduaren 26an, "Katu bat Parisen" pelikula izan genduan ikusgai eta abenduaren 29an, "Olentzero eta iratxoaren jauntxoa". Pelikula biak arratsaldeko 5etan izan ziran.

Maruri-Jataben barriz, hiru pelikula ikusteko aukerea izan dogu Kultur Etxean:

Abenduaren 23an "Katu bat Parisen"; abenduaren 27an "Harri magikoaren bila" eta abenduaren 30ean "Julietta, fokatxo xelebrea". Lehenengoa arratsaldeko 6etan izan zan eta besteak, umeak oporretan egoazala aprobetxatuz, goizeko 11:30ean. Bai batean zein bestean ume nahikoa batu zan.

Emonaldi honek guztiak doan izan dira.

Zinema Euskaraz

Maruri-Jataben



Abenduak, 23, barikua
Arratsaldeko 18.00etan



Abenduak 27, martitzena
Goizeko 11:30etan



Abenduak 30, barikua
Goizeko 11:30etan

ABENDUAN... ZINEA EUSKARAZ!!



"Katu bat Parisen"
Abenduak 26, astelehena



"Olentzero eta iratxoaren jauntxoa"
Abenduak 29, eguena

SARRERA DOAN!!

Non / dónde: Atxispes

Ordua/ Hora: Arratsaldeko 5 de la tarde



Antolatzailea
Maruri-Jatabeko Udala

SARRERA DOAN

Babesleak



Antolatzailea:
Laukizko Udala



Babesleak



Euskeraren eguna Maruri-Jataben

Pasa dan abenduaren 3an, egun berezia izan zan Maruri-Jataben. Lehenengoz ospatu gura izan genduan euskeraren eguna era partehartzaile baten bitartez: liburu bat jarraian irakurriz alegia. Honetarako Jon Arretxe idazleagaz hartu-monean jarri eta "Zazpi kolore" liburuia irakurteari ekin geuntsan. Idazlea bera bertaratu zan ekitaldiari eta liburuari hasikerea emoteko eta beren beregi prestatu eban aukezpena ipuin bakotxari egokozan irudiekaz.

Bi txalapartarik egin eben deia, jarraian zazpi koloreen ipuinak apurka apurka irakurteko. Holan, Beltzagaz hasi eguerdian, Grisa, Horia, Gorria, Berdea, Urdinagaz jarraitu eta Zuriagaz amaitu genduan ordu bi eta erdiak aldera. Ume zein gazte, heldu zein nagusi, emakumezko zein gizonezko, denok hartu eben parte. Herriko jendeaz ganera, Maruri-Jatabegaz zerikusia edo erlazinoa daukien lagunak be etorri jakuzan. Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara Zuzendaria dan Miren Dobaranek amaiera eman eutson ekitaldiari eta gonbidapenagaitik esker-rak emoteaz aparte, partehartzaileak be zoriondu ebazan, ez baita ohikoa herri txiki baten hainbeste jende batzea.

Partehartzaile bakotxari landare txiki bat oparitu jakon honako esaldia eukana: *"Euskera, honen moduan, jagon beharrekoa"*.

Azkenez, amaituteko kopua prestatu genduan eta irakurritako liburuaren hiru ale zozketatu ziran.



Egun honetan gertatutakoa bideoz grabatu genduan eta itxaroten dogu hemendik gutxira editatu eta partehartzaileen artean banandu ahal izatea.

Guztira, egun honetan 60 lagun inguru batu ginan euskeraren inguruan: batzuk ipuin bakotxaren atal bat irakurten, beste batzuk bideoa grabatzen, beste batzuk txalaparta jotzen ala kopua prestatzen. Euskerak guztion beharrazana dauka. Baina Arretxek berak esan eban lez: "egunero izan beharko litzake Euskeraren eguna".

... eta Olentzero



heldu zan



Maruri-Jatabeko memoria historikoa

Herriko lagun talde batek interesa dauko Maruri-Jataben Guda Zibilaren inguruko informazioa jasotzeko. Horregaitik dauala aste batzuk Udalak dei egin eutsen herriari gai honen inguruko edozein objektu, argazki, dokumentu udaletxera helarazoteko. Materialik jasoz gero, kontu handiz gordeko eta egoera onean bueltatu jako jendeari. Intesdunek udaletxera edota kultur etxera jo.



IPUIN LEHIAKETA

Abenduaren 23an eta Laukizko eskolako jaietan barruan, ipuin lehiaketaren sari banaketa egin zen. Lehenengo eta behin, eskerrak eman behar dizkiegu Laukizko eskolako irakasleei baita gurasoen elkarteari izandako inplikazioagatik. Hori dela eta, aurten ea 30 ipuin aukezta dira. Beraz, umeen ahalegina saritu nahian eta hasieran kategoriatu bakoitzeko sari bana ematea erabaki bazen ere, azkenean, bi sari banatu ziren kategoriatu bakoitzeko. Hona hemen saridunak.

A Kategoriatu (8 ipuin)

- Jon Loroño. "Skeita"
- Paule Garaizar. "Otso"

B Kategoriatu (14 ipuin)

- Miren Loroño. "Tximeleta eta arraina"
- Arkaitz Urrutia. "Umea basoan"

C Kategoriatu (4 ipuin)

- Paula Zorriketa. "11 ikasle abenturan"
- Joseba Mentxaka. "Ume nanoa"

D kategoriatu ez da ipuinik aurkeztu

E Kategoriatu (Ipuin 1)

Alazne Mugarza "Aurrera begira"

Honetaz gain parte hartzaile guztiei egokitu zitzaizen liburu bat.

Ea datorren urtean aurten beste partehartzaile dugun eta kategoriatu guztietan!



"Denboraldiko onenak"

Gure herriko Gaztedi sokeratira taldeak berriro ekarri du herrira sari bat. Oraingoan, Bizkaiko Kirol Prentsak urtero data hauetan antolatzen duen Kirol jaietan zehar "Ohorezko saria" eman dio. Sari hau jasotzeko arrazoiak besteak beste, bere ekintzetan erakutsitako maila altua, kudeaketan izandako kalitatea eta lortutako emaitzak.

Zorionak Gaztedi!



AGENDA

- Urtarrilaren amaieran liburutegiko programagaz hasiko gara barriro. Erne kartelei!
- Ikastaro eta tailer berriak "labean" dagoz. Gutxi barru izango dozue gure barri.

ABESTU GEUGAZ • Esne beltza - Gogoak

It's a new dawn,
it's a new day
it's swiftly gone by
you know how I feel

Emaidazu berriro
ongietorria
zu zara nire poz
guztien iturria
emaidazu berriro
ongietorria
gelditzeko nator eta!

Tren batean
gurutzatzen diren
begiradak
barra ertzean
ematen diren muxuak
lo aurreko uneak amesten,
amesten
egunak joaten dira...
hondartza horian
egindako gazteluak
ez dituzte olatuek eraitsiko
gure eskuekin
marraztutako loreak
ez ditu denbora ebakiko

Emaidazu berriro
ongietorria
zu zara nire poz
guztien iturria
emaidazu berriro
ongietorria
gelditzeko nator eta!

Le notti arrivano veloci
I gior/ni scappano
dalle mie mani
Ricordi il treno
nella nostra stazione
Invece qui la gente
no ci parlate
Loak hartu baino lehen
esnatu nahi nuke
loak hartu baino lehen
amestu nahi nuke
e songi
aspaldiko garaien
bidean galdurik
gogoratzen zaitudan
bezala ikusi!!!
Immagini, immagini, immagini

Emaidazu berriro
ongietorria
zu zara nire poz
guztien iturria
emaidazu berriro
ongietorria
gelditzeko nator eta!


Immagini, e sogni, di quella
Racogliemi di novo
fra le tue braccia
Perché sei tu la fonte
della mia felicità
Racogliemi di novo
fra le tue braccia
Perchè ritorno per restare
Emaidazu berriro
ongietorria
zu zara nire poz
guztien iturria
emaidazu berriro
ongietorria
gelditzeko nator eta!

ALE HONETAN PARTE HARTU DUTE

ISAAC AMEZAGA
MARIA FERNANDEZ
SUSANA OLEA
SAIOA SANZ
ARGIÑE UGARTE



MARURI-JATABEKO
UDALA



LAUKIZKO
UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



euskara biziberritzeko plan nagusia
plan general de promoción del uso del euskera



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA